

Komentariorik gabe



ARITZ GALARRAGA

Ez du askorik iraun aurreko zutabeko agurrak, eta hemen gara berriz, biziberriturik. Onartuko didazue, ordea, nire afizio nekrofiloei eskainitako hirugarren zutabe bat, hilerri buruzko trilogia modu hau akitzeko –eta gauza pizgarriagoetara pasatzeko–. Hilerri atarietan jarri ohi diren esaldiak aipatzen genituen, Iñaki Seguioren eskutik, baina bada hilerri-literaturaren baitako azpigenero bat, oraindik landu ez duguna, epitafio edo hilartitzena. Hala definitzen du hilartitza Ambrose Biercek *Deabruaren Hiztegia* liburuan: “Hilobi gaineko inskripzioa, heriotzaren bidez eskuratutako bertuteek atzera-eragina dutela erakusten duena”.

Mariana Enríquezek gure Indalezio Bizkarrondo Bilintxena jasotzen du bere liburuan, gaztelania batuan, hala baitago bardoaren hilobian; baina hain da zozo-klasikoa, are hildakoaren agoniaren aldean, ez baitu merezi hona ekartzea ere (hara, baduzue aitzakia bat Polloeko hilerria bisitatzeko). Beste idazle batzuk irudimentsuago ibili ziren, eta esaldi gogoangarriagoak utzi zituzten eternitaterako. Dorothy Parkerrek, esaterako: “Barkatu hainbeste hauts”. Edo Charles Bukowskik: “Ez saiatu”. Emily Dickinsonek: “Deitu naute”. Eta Miguel Mihurak nahi izan zuena: “Esan nuen mediku hark ez zuela askorik balio”.

Baina joka dezagun kreatibo, jolas gaitezen nekroidazlearena egitera, asma ditzagun hilartitz ederrenetan agertzeko moduko esaldi betiereko batzuk. “Bazen garaia!”, idatz dezake zendu presatuak. “Bost minutu gehiago”, ohe-zuloak. “Nik gintonic bat, mesedez”, lehor, egarri denak. “Barkatu, baina nor zara zu?”, harrizkeko gaitasuna galdu ez duenak. “Hau ez dago hain gaizki”, konformaerazak. “Deskantsatzen behintzat ari naiz”, bereziki aktibo ez zenak. Edo “Zuek zarete hilobi batean zaudetenak, ez ni”, poeta eroak. Eta akaso egokiena ni bezalako hitz-eskas eta halere eszeptiko batentzat: “Komentariorik gabe”. Presente izanik, beti ere, Enrique Jardiel Poncelaren epitafioak dioena: “Gorazarrerik handienak nahi badituzue, hil zaitzete”. ●



ADUR

“MEDIKUNTZAKO IKASKETAK EUSKARAZ EGIN NAHI DITUT, BAINA ZAILTASUNAK HANDIAK DIRA”

PATXIKU ORDOUILLE, TERMINALEAN IKASLE

Goi mailako ikasketak euskaraz segitzeko aukera urri batzuko baino ez direnez Ipar Euskal Herrian, Etxepare lizeoko gero eta ikasle gehiagok, %25etik gora aurren, Hego Euskal Herriko unibertsitateetan izena emanen dute, euskaraz segitzeko ikasketak. Baina bidea ez da simple. Ikasketen konbalidazioa egin behar da, baxoaren notazioak ere ez dira berdinak eta epeek ere ez dute laguntzen. Alta, urratsak eman dira azken urteetan, egoera samurtzeko. Ordouillek medikuntza egin nahiko luke Bilbon. Inkas, Bordelen ere izena emana du. **EUSKAL IRRATIAK (2021/06/04)**

